IRAGARKIA, Juan Cruz Balda Arruti jaunari Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren 2006ko uztailaren 14ko Ebazpena jakinaraztekoa. Ebazpen horren bidez, Juan Cruz Balda Arruti jaunari nekazaritza eta ingurumeari buruzko neurrietarako ematen diren laguntzen kontzeptuan egin behar ez zitzaion ordainketa bat itzultzeko prozedurari hasiera eman zitzaion. 20826

IRAGARKIA, Arrantza eta Akuikultura zuzendariak hartutako erabakiak jakinarazteko dena. Itsasarrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legea ustez urratzeagatik hasiera ematen zaie behean zehaztutako zehapen-prozedurei erabaki horien bidez. 20826

ANUNCIO por el que se notifica a D. Juan Cruz Balda Arruti la Resolución de 14 de julio de 2006, del Director de Agricultura y Ganadería, por la que se acuerda iniciar el procedimiento de reintegro de un pago indebido realizado a favor de D. Juan Cruz Balda Arruti, en concepto de ayudas para el establecimiento de medidas y compromisos agroambientales. 20826

ANUNCIO por el que se notifican los Acuerdos del Director de Pesca y Acuicultura que inician los procedimientos sancionadores abajo relacionados por presunta infracción a la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de Pesca Marítima. 20826

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 5264

198/2006 DEKRETUA, urriaren 10ekoa, Lanpostuen Zerrendak, ikasturtez ikasturte, Bigarren Mailako Irakaskuntzako Institutuetako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuetako zein irakaslerengan duen eragina zehazteko irizpideak ezarri eta irakasleak zentroetan berriro atxikitzeko prozesua arautzen duen Dekretua aldatzen duena.

Uztailaren 12ko 24/1994 Legeak, irakaskuntzako funtzionarioek lanpostuak betetzeko arauak ezarri dituenak, bere 1. artikuluan ezarri duenez, hezkuntza-administrazioek «lanpostuak betetzeko prozedurak antolatu ahal izango dituzte …., hori guztia, jakina, langileak birbanatzeko edo birkokatzeko prozesuan noiznahi egin ahal izatearen kaltetan gabe».

Apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuz arautu ziren Bigarren Mailako Irakaskuntzako Institutuetako eta Goi Mailako Lanbide-Heziketako Berariazko Institutuetako plantilak egokitzeko prozesuak. Arau horrek aukera eman du urteotan zehar irakasleak birbanatu eta birkokatzeko prozesu egokiak egiteko ikastetxe horietan, ikasturte bakoitzean egokitu ahal izateko ikastetxe bakoitzeko behin betiko plantila LPZren aldaketei.

Urteotan, hala ere, hezkuntza arautzeko bi lege organiko onartu dira -10/2002 Lege Organikoa, abenduaren 23koa, Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa (LOCE); eta oraintsuago, 2/2006 Legea, maiatzaren 3koa, Hez-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 5264

DECRETO 198/2006, de 10 de octubre, por el que se modifica el Decreto por el que se establecen los criterios para determinar el personal docente afectado cada curso escolar por la Relación de Puestos de Trabajo de los Institutos de Educación Secundaria y de los Institutos Específicos de Formación Profesional de Grado Superior, y por el que se regula el proceso de readscripción del profesorado en sus respectivos Centros.

La Ley 24/1994, de 12 de julio, por la que se establecen normas sobre concursos de provisión de puestos de trabajo para funcionarios docentes, dispone en su artículo 1 que las Administraciones Educativas «podrán organizar procedimientos de provisión …., todo ello sin perjuicio de que en cualquier momento puedan realizar procesos de redistribución o recolocación de sus efectivos».

Mediante Decreto 86/2002, de 16 de abril, se regularon los procesos de adecuación de plantillas de los Institutos de Educación Secundaria y de los Institutos Específicos de Formación Profesional de Grado Superior, norma que ha posibilitado que a lo largo de estos años se hayan llevado a cabo en los mencionados Centros los oportunos procesos de redistribución y recolocación del profesorado para adecuar cada curso escolar la plantilla definitiva de cada Centro a las diferentes modificaciones de la RPT.

Sin embargo, en estos años se han aprobado sendas leyes orgánicas reguladoras de la educación -la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (LOCE), y más recientemente, la Ley 2/2006,

kuntzari buruzkoa (LOE)-, eta hauxe ekarri dute, besteak beste: goian adierazitako dekretua lege horiek diotenera egokitu beharra; zehazki, katedradun izaeraren desagertzeari dagokionez, kategoria edo izaera hori zuten irakasleak Katedradunen Kidego berrietan sartu baitira.

LOCEk, egin-eginean ere, bere bederatzigarren xedapen gehigarrian sortu ditu Bigarren Hezkuntzako Katedradunen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradunen eta Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradunen Kidegoak, eta honako hau xedatu du: dagokien Katedradunen Kidegoetan sartuko direla katedradun-izaera aitortua duten funtzionarioak. Lege horren azken xedapenetan hirugarrenak, berriz, indarrik gabe utzi ditu Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako 1/1990 Lege Organikoak, urriaren 3koak, katedradun-izaerari buruz egindako aipamen guztiak.

LOEk, bere aldetik, eutsi egin die Katedradunen Kidego horiei, eta bere zortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusi duenez, dagokien irakasleen kidegoetako funtzionarioak, baldin eta katedradun izaera aitortua badute, Katedradunen Kidegoetan sartuko dira.

Era berean, ikasturtero ikastetxeetan plantilak egokitzeko egin diren prozesuetan pilatutako esperientziak erakutsitakoari jaramon eginez, bidezko da 16. artikuluak ezarritako ordenamendu-irizpideetako bat argitzea. Hain zuzen ere, 3. paragrafoko a) letran ageri den irizpidea da, ikastetxean izandako antzinatasunari buruzkoa, azken tarteki bat gehitu baitzaio, honako hau argitzeko: lehentasuna jartzeko kontuan hartzen den zerbitzu-denbora parte hartzen duten institutuan etengabe pilatutakoa dela, baina «zer Kidegotik parte hartzen den, Kidego horretan bertan izanik».

Ildo beretik, Latineko eta Grekoko plazak arian-arian galduz doazenez, bidezko dirudi «Kultura Klasiko»ko lanpostuetarako berratxikipena aurreikustea; izan ere, urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarriak aurreikusitakoaren arabera, lanpostu mistoak dira, eta aipatutako bi espezialitateak emateko irakaskuntza-gaitasuna ematen zaie horien titularrei. Hori dela eta, behar bezala identifikaturik agertuko dira plaza horiek Lanpostu Zerrendan, eta aipatu espezialitate bietako edozeinen titular diren Bigarren Irakaskuntzako irakasleek bete ahalko dituzte berdin, eta irakasle horiek, berratxiki ondoren, Grekoko zein Latineko espezialitateei egotzitako gai guztiak eman beharko dituzte.

Beste ildo batetik, apirilaren 16ko 86/2002 Dekretua argitaratu ondoren, Administrazio honek prozesu luze eta neketsu bati ekin dio, Araubide Bereziko Irakaskuntzak eta horiek ematen dituzten zentroetako plantilak arautzeko. Prozesu horri esker, alde batetik, ikastetxe horietako lanpostuak eratu eta taxutu ahal

de 3 de mayo, de Educación (LOE) -, que provocan la necesidad de adaptar el Decreto de referencia a las previsiones contenidas en aquéllas, concretamente por lo que hace referencia a la desaparición de la condición de catedrático, que es sustituida por la integración del profesorado que ostentaba dicha condición en los nuevos Cuerpos de Catedráticos.

Efectivamente, la LOCE crea en su disposición adicional novena los Cuerpos de Catedráticos de Enseñanza Secundaria, de Escuelas Oficiales de Idiomas y de Artes Plásticas y Diseño, y señala que los funcionarios que tengan reconocida la condición de Catedrático se integrarán en sus respectivos Cuerpos de Catedráticos. A su vez, la disposición final tercera de dicha Ley deja sin efecto todas las referencias relativas a la condición de Catedrático incluidas en la Ley 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo.

Por su parte, la LOE mantiene dichos Cuerpos de Catedráticos, y en su disposición adicional octava contempla la integración en dichos Cuerpos de los funcionarios de los respectivos Cuerpos de Profesores que tienen reconocida la condición de Catedrático.

Asimismo, la experiencia acumulada en la celebración de los procesos de adecuación de plantillas celebrados en los Centros Docentes cada curso escolar aconseja clarificar uno de los criterios de ordenación establecidos en el artículo 16. Concretamente, se trata del criterio previsto en la letra a) del apartado 3, relativo a la antigüedad en el Centro, al que se añade un último inciso que pretende aclarar que el tiempo de servicio que se tiene en cuenta, a efectos de establecer la prelación, es el acumulado de forma ininterrumpida en el Instituto en el que participa, pero «en puestos de trabajo correspondientes al Cuerpo desde el que se participa».

En este mismo sentido, ante la progresiva desaparición de plazas de Latín y de Griego, parece oportuno contemplar la readscripción a puestos de trabajo de «Cultura Clásica» que, conforme a lo previsto en la disposición adicional décima del Real Decreto 1635/1995, de 6 de octubre, son aquellas plazas mixtas a cuyos titulares se les atribuye competencia docente para impartir las dos especialidades señaladas. Para ello, estas plazas aparecerán convenientemente identificadas en la Relación de Puestos de Trabajo, y podrán ser cubiertas, indistintamente, por los/as profesores/as de Enseñanza Secundaria titulares de alguna de las dos especialidades citadas, que, una vez readscritos, vendrán obligados/as impartir tanto las materias correspondientes a la especialidad de Latín como a la especialidad de Griego.

En otro orden de cosas, con posterioridad a la publicación del Decreto 86/2002, de 16 de abril, esta Administración ha llevado a cabo un dilatado y laborioso proceso de regulación de las Enseñanzas de Régimen Especial y de las plantillas de profesorado de los Centros en los que éstas se imparten, proceso que ha permiti-

izan dira, hizkuntza-eskakizunen aldetik, dagokien LPZen bitartez, eta bestetik, eta prozesuari buru emanez, lanpostu horiek bete, dagozkien Enplegu Publikorako Eskaintzen bidez.

Hartara, ikastetxe edo zentro horiek, gaur egun, badituzte dagozkien LPZk definituta, baita lanpostuak beteta ere, zentro horietan behin betiko destinoa duten irakasleekin, gehien bat. Ikastetxe horiek ere, jakina, LPZren aldaketak ekar ditzaketen hainbat gorabehera edo inguruabar izan dezakete (matrikula igo edo jaistea, espezialitateak edo hezkuntza-proiektuak jarri/kentzea, bilakaera soziolinguistikoa …), eta ondorioz, irakasleen plantila hezkuntza-sistemaren errealitate aldakor horretara egokitu beharra, plantilak egokitzeko bidezko prozesuen bitartez, gainerako irakaskuntza eta ikastetxeetan gertatzen den bezala.

Horiek horrela, eta plantilak egokitzeko prozesuak ikastetxe horietarako beren beregi arautu bitartean, bidezko dirudi 86/2002 Dekretuak Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxe guztientzako jaso duen prozedurara jotzea, halako moldez non, Irakaskuntza Berezietako zentro edo ikastetxeren batek plantilak egokitzeko prozesurik egin behar izanez gero, aipatu araua aplikatuko den. Helburu hori gogoan, hirugarren xedapen iragankorra sartu da, ordezko aplikazio osagarri hori erregulatzeko asmoz.

Arau-proiektu hau lantzeko prozesuan, nahitaezko txostenak eskatu dira, eta sindikatuei zor zaien nahitaezko alegazio-tramitea ere bete da.

Horiek horrela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko urriaren 10ean egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Lehenengo artikulua.–* Aldatu egin da apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuaren 14. artikuluko 2. paragrafoa, honela dioen beste lerroalde bat gehitu baitzaio:

> «Era berean, Kultura Klasikoko espezialitateko lanpostuetara berratxikitzeko, Latineko espezialitatea edo Grekoko espezialitatea eduki beharko da. Lanpostuok behar bezala identifikatuta agertuko dira Lanpostu Zerrendan, eta aipatu espezialitate bietako edozeinen titular diren Bigarren Irakaskuntzako irakasleek bete ahalko dituzte berdin, eta Grekoko zein Latineko espezialitateei egotzitako gai guztiak eman beharko dituzte.»

do, de una parte, configurar y perfilar lingüísticamente los puestos de trabajo de dichos Centros a través de las correspondientes RPT´s, y, de otra parte, y como colofón del proceso, la cobertura de esos puestos de trabajo mediante las correspondientes Ofertas de Empleo Público.

De esta forma, en estos momentos nos encontramos con que los señalados Centros tienen ya definidas sus respectivas RPT´s, y tienen igualmente cubiertos sus puestos de trabajo con profesorado que, en su práctica totalidad, tiene destino definitivo en los mismos. A su vez, estos Centros son susceptibles de verse afectados por diferentes circunstancias que determinan modificaciones de RPT (aumento/disminución de matrícula, implantación/supresión de especialidades o proyectos educativos, evolución socio-lingüística …), y que conllevan la necesidad de adecuar la plantilla de profesorado a esa cambiante realidad del sistema educativo, a través de los oportunos procesos de adecuación de plantillas, al igual que ocurre en el resto de enseñanzas y Centros Docentes.

Por ello, y en tanto se regulen de forma específica para estos Centros los referidos procesos de adecuación de plantillas, parece oportuno hacer una remisión a la regulación y al procedimiento recogido en el Decreto 86/2002 para la generalidad de los Centros de Educación Secundaria y de Formación Profesional, de forma que cuando en alguno de aquellos Centros sea necesario realizar un proceso de adecuación de la plantilla, resulte de aplicación la señalada normativa. Con este objetivo, se introduce una disposición transitoria tercera que regula esta aplicación supletoria.

En el procedimiento de elaboración del presente proyecto normativo se han recabado los informes preceptivos y se ha observado igualmente el preceptivo trámite de alegaciones por parte de la representación sindical.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 10 de octubre de 2006,

DISPONGO:

*Artículo primero.–* Se modifica el apartado 2 del artículo 14 del Decreto 86/2002, de 16 de abril, al añadirse un tercer párrafo con la siguiente redacción:

> «Asimismo, para readscribirse a puestos de trabajo de la especialidad de Cultura Clásica, será necesaria la posesión de la especialidad de Latín o de la especialidad de Griego. Estos puestos de trabajo, que aparecerán convenientemente identificados en la Relación de Puestos de Trabajo, podrán ser cubiertos, indistintamente, por los/as profesores/as de Enseñanza Secundaria titulares de cualquiera de las dos especialidades señaladas, y aquéllos/as vendrán obligados/as a impartir tanto las materias atribuidas a la especialidad de Griego como a la de Latín».

***Bigarren artikulua.–*** Beste idazkera bat eman zaio apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuaren 16. artikuluko 2. paragrafoari, eta honela geratu da idatzita:

«2.– Katedradunen Kidegoetako irakasleek, baldin eta Batxilergoko Katedradun Numerarioen Kidego desagertutakoetarako edo Irakaskuntza Bateratuen Ikastetxeetako irakasle numerario eta psikologoetarako berariazko lekualdatze-lehiaketetan lortutako plaza batean eusten badiote behin betiko destinoari, aukera berera aurkezten diren gainerako irakasleekiko lehentasuna izango dute. Kasu horretan dauden pertsona batzuk batera aurkeztuko balira, 3. paragrafoko irizpideak eta, egoki izanez gero 4. paragrafoko irizpideak erabiliko lirateke.»

***Hirugarren artikulua.–*** Beste idazkera bat eman zaio apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuaren 16. artikuluko 3. paragrafoaren a letrari, eta honela geratu da idatzita:

«a) Karrerako funtzionario gisa etengabe zerbitzuan emandako denbora, behin betiko destinoa parte hartzen duten institutuan, eta zer Kidegotik parte hartzen den, Kidego horretan bertan izanik:

0,1 puntu hilabeteko, mugarik gabe.»

***Laugarren artikulua.–*** Hirugarren xedapen iragankorra gehitu da, ondoren adierazten den testuarekin:

«Hirugarrena.– Araubide Bereziko Irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetako plantilak egokitzeko prozesuak beren beregi arautu bitartean, ikastetxe horietako batean irakasleak birbanatu edo birkokatzeko prozesurik egin behar izanez gero, dagokion Lanpostu Zerrendan agertutako hezkuntza-plangintzaren aldaketak direla eta, apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuan jasotako prozedura, irizpideak eta gainerako erregulazioa aplikatuko dira, irakaskuntza horien berezkotasunen kalterik gabe».

AZKEN XEDAPENA

Honako Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko urriaren 10ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

***Artículo segundo.–*** Se da nueva redacción al apartado 2 del artículo 16 del Decreto 86/2002, de 16 de abril, que queda redactado de la siguiente forma:

«2.– El profesorado perteneciente a alguno de los Cuerpos de Catedráticos que mantenga su destino definitivo en la plaza obtenida en los concursos de traslados específicos para los extinguidos Cuerpos de Catedráticos numerarios de bachillerato o Profesores numerarios y psicólogos de Centros de Enseñanzas Integradas, gozará de preferencia con respecto al resto de personas que confluyan en la opción. Si coincidieran varios, se aplicarán los criterios del párrafo 3 y, en su caso, los del párrafo 4».

***Artículo tercero.–*** Se da nueva redacción a la letra a) del apartado 3 del artículo 16 del Decreto 86/2002, de 16 de abril, que queda redactado de la siguiente forma:

«a) Tiempo de servicio ininterrumpido como funcionario o funcionaria de carrera con destino definitivo en el Instituto en el que participa y en el Cuerpo desde el que participa:

0,1 puntos por mes, sin límite.»

***Artículo cuarto.–*** Se añade una disposición transitoria tercera con la redacción que se indica a continuación:

«Tercera.– En tanto se regulen de forma específica los procesos de adecuación de plantillas de los Centros en los que se imparten Enseñanzas de Régimen Especial, cuando en alguno de estos Centros fuera necesario llevar a cabo un proceso de redistribución o recolocación del profesorado con motivo de las modificaciones de la planificación educativa reflejadas en la correspondiente Relación de Puestos de Trabajo, resultará de aplicación el procedimiento, los criterios y el resto de la regulación contenida en el Decreto 86/2002, de 16 de abril, y ello sin perjuicio de las especificidades propias de estas enseñanzas».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de octubre de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.